

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Proiektu hau enpresei zuzenduta dago, zehazki moda enpresei. Gure enpresak moda-enpresei eskanerrak salduko dizkie, zehazki, teknologia berrien bidez berritu nahi duten arropa dendei.

Moda-enpresek bezero mota desberdinak izan ditzakete, produktu mota hau kontsumitzaileentzat harrigarri samarra izan baitaiteke. Aldi berean, kontuan izan behar dugu bezero hauek teknologiarako sarbide minimo bat izan behar dutela. Hau da, telefono mugikor eguneratua izan behar dute gure mugikorrerako aplikazioan sartzeko. Horregatik, adinekoek mugak izango dituzte beren kabuz aplikazioa erabiltzeko orduan.

Gure enpresari dagokionez, batez ere INDITEX enpresari salduko dizkiogu eskanerrak, bere baitan hainbat arropa marka sartzen direlako, hala nola: Zara, Massimo Dutti, Pull & Bear, Zara Home, Stradivarius, Bershka, Uterqüe eta Oysho. Kostu baxuko markak dira eta jende mota guztientzako merkeagoak dira.



Eskaner hauek gizartean, hau da, modaren munduan gehiago sartzen direnean, goi mailako markei salduko dizkiegu: Gucci, Prada, Louis Vuitton, Versace, Balenciaga, Dior, Hugo Boss, Dolce & Gabbana, Marc Jacobs, Chanel...

